

# ELGETA

Hedadura: 16'9 Km2

Jaiak:

- Herrikoak: Abuztuaren 15ean, Andra Mariaren Jasokundea edo " Andra Mari Jaiak ", 16an San Roke basilizan elizkizuna egiten da.
- Goimendi: Uztailaren 25ean, Erromeria Santiago basilizara.

Biztanlegoa: 1.007 biztanle

- Herriko Jaiak: San Pedro ondoko (ekainaren 29an) lehenengo asteburua. Ospetsua da bailara mailan egiten den Gaudu azoka, Makineria eta Ferreteria leiha-keta, probintzian garrantzitsuenetarikoa izanik.
- San Salvador basiliza: Abuztuaren 6an, Jainkoaren Antzaldatzea. Erromeria.

**B**izkaiko mugan lekuturik dagoen ertaroko hiribildua da, Bergarak Elorriorekin bat egiten duen errepidean. Badira bertarainoko errepideak Eibar, Arrasate eta Angiozardik. Azkeneko hau, Ubera eta Oxirondorekin batean, Elgetako udalerrian atal izan da. Oxirondo, hurbiltasuna zela eta, Bergarari uztartu zitzaion erdi aroan eta gaur egun bertako hirigunean barne-harturik dago. Ubera eta Angiozarrek bide bera urratu dute mende honetan.

1375ean sortu zen herria Alfonso XI.aren erabakiz. Honekin, Gipuzkoako lurraldearen mugak sendotu nahi zituen bizkaitarren erasoaldien aurrean. Hautatu zen kokagunea Maia izen adierazgarriarekin ezagutzen zen. Goigune batean zutitzen da, ez oso babesean baina baldintza estrategiko ezin hobekak dituela. Halaz ere, herriak goigunean eremu-rik lauena hartzen du.

Hastapenean aurrez-aurreko bi kale eta oinplano angeluzuzeneko barruti hesitua, zegozkien sarrera-ateekin, baizik ez zituen. Auzuneak herrirako sarrera-bide inguruetan barreiatu ziren. XVI. menderako harresiz kanpoko hazkuntza jatorrizko gunearen adinakoa zen.



**San Roke kalea.**

Gipuzkoako ertaroko hiribildu guztietan usu zen bezalaxe, herria sortu ondoko aldiari egurrezko eraikuntzak izan ziren buru, hesiak eta Parroki-eliza salbu. Eliza herriaren muturretako batean lekutzen zen, harresi ondoan eta zituen ezaugarriekin hiri-barrutia babesten zuen. XVI. mendetik aurrera ekingo zaio harrizko eraikuntzak egiteari.

Azkeneko gerrate zibilean, gudataldea hilabeteetan egon zen bertan lekutua. Elgetak hainbat erasoaldi eta bonbardaketa pairatu zituen, udalerriko eraikuntza ugari erabat suntsiturik geratu zirelarik. Gerora, beste hiri-plangintza bat burutu zen eta Elizarren eta Bergara eta Elorriorako errepidearen arteko saila egituraketa berria emanez berritu zen, egungo Mendizaleen Plaza eta Andra Mari Plaza sortuz, Udaletxe inguruan daudenak.

Herritarrak burni-artesautzaren garapenean nagusi:u dira. Errenazimendurako iadanik bazen errementariak biltzen zituen auzune bat; Elorrio eta Kanpanzar alderako irtera inguruetan lekutzen zen, bide horiek bertatik igarotzeak zekartzan merkataritza-abantailak baliatuaz. Egoera hau somatzen da herri-historiaren beste zenbait alderditan ere, bai bidaiariari eman ohi zitzaizkien zerbitzuetan bai muga-ihardueren bitartez.





**Mendizaleen plaza.**

## HIRIGUNE HISTORIKOA



Elgetako hiriguneak bi arpegitako itxura erakusten du, ertaroko tajuketatik eratorria bata, eta Gerrate zibilaren ondorioek eragindakoa bestea.

■ San Roke kalea, lehengo "Kalegoen", Elgetaren tradiziozko itxuraren herri-kale ordezkagarritzat har daiteke. Bi etxe-hilada ditu. Kanpo aldean dagoenak, atzekaldean Postigo kalea izena hartzen du.

Magdalena kantoiairekin egiten den bidegurutzetik aurrera, kaleko eraikuntzarik interesgarrienen saila hasten da, zenbaki pareetara mugaten dena. Besteak beste, 6. zbk.koa dugu aipagarri, XIII. mendeko eredu bikaina eta 36 zbk.duna, XVII. mendekoa dena.

■ Jasokundeko Andra Mariaren Parroki-Eli-za (\*1)

Jasokundeko Andra Mariaren eliza kaleak biltzen duen testigantzarik nagusia da. 1377az gerostik agiritan jaso azaltzen da baina XVI. mendean ekingo zaie handitze lanei, mendebetetik gorako iraupena izan zutenak. Elizak hiru ataletan banatutako nabe bakarra du, gurutzeriazko gangek estaltzen dutela. Korua egurrezkoa da. Sortu zeneko garaioak kanpoko hormen behe aldean kokatutako hainbat leihoztar ditu. Barruan Santiagoren erretaula, eragin manieristak jaso dituen Errenazimenduko obra handia eta aldare nagusiko erretaula barrokoa nagusitzen dira. 1604ekoa da. Urreztaketa lana mendebete beranduago egin zitzaion. Elkarteko panteoi-hilobiaren zoru ere gorde da, familien hilobiak muguatuak eta zenbakiz bereziak daudela. Kanpoan, zelai zabalean, bi hilobi gotiko daude, 1473 eta 1563koak hurrenez-hurren.

R San Roke kaleko etxe hilada trinkoaz gain, badira etxe arkitekturaren bestelako

eredu jakingarriak, hirigunearen gunerik goitituenean lekutzen direnak. Gaur egun oso sakabanaturik daude, bonbardaketek eragindako suntsiketaren ondorio. Orain gutxi arte etxe sail zabal samarretan kokaturik zeuden eta ertaroan izandako hiri egituraketa irudikatzen zuten.

Hiri-plano egituratua jarraiki eraiki zen ertaroko barrutia izan ezik, gainerako etxe sailak, auzoak, auzuneak e.a. herria inguruko lurraldeekin uztartzen zuen errepideari loturik sortuko dira.

## AUZUNEAK

● *Magdalena auzunea*

XIX. mendean egungo errepideak ordezkatu zuen Bergararako errepide zaharrak



**Jasokundeko Andra Mariaren parroki-elizaren barrenaldea.**



**Abidrio etxea edota Urrupain dorrea.**



**San Roke kaleko 6 zbk.dun etxea.**

oraindik bizirik dirau Magdalena kalea edo Maala izenarekin. San Roke kalearen buruan urratzen da eta Urrupain dorrearen parean (21-11) bat egiten du errepide nagusiarekin, malda biziko mendi-hegalak zeharkatuaz, gurdi eta gainerako ibilgailuen joan etorrira-ko bide ikaragarri zailak suertatu ohi zirelarik. Kalearen izenak herriko ospitale zahar-aren tradizioa jasotzen du (\*2), baseliza baizik geratzen ez dela (\*2).

### **O Goiko auzunea**

Salbador kalea luso edo Goiko auzunea-ekin erlazio naturik dago eta XVI. mendeko agiritan jaso dago. Ertaroko herriaren mugetatik Kanpanzar eta Angiozarreko interetaraino hedatzen Zen.

Auzunearen tradiziozko imajina Kanpanzar alderako sarreran biltzen da. Bi edo hiru solairutako eraikuntza xumeek osatzen dute, inoiz fatxadan harlanduzko elementuak dituztenak.

Hirigunetik gertuen dagoen eremuan, Banku Oker plaza izan zen tokian, zenbait eraikuntza adierazgarri eutsi zaio: Ostatu Txikia (\*6), Posada (\*5),Torrezar (\*4)gerra ondoren oso aldatua, edota Gebara (\*3), 1868an eraikia. Hauxe gain, Diputazioaren Etxea gailentzen da, mende honetakoa. Eraikuntza hau, Elorriorako errepidearen sarrera-arkua ezaugarri duela, hirigunearen irudizko itxuraren atal izatera aldatu da.

## **UDALERRIA**

### **O Uriburu Aldea**

Eibarrerako errepidea zabaltzea gertakari berri samarra da Elgetaren historian. Joan den mendean zabaldu zen eta ordura arte, gurdiekin Eibarra joan nahi izanez gero Bergarako bidetik bueltan egitera beharturik zeuden. Mendi edo zaldibideak berriz, antzianatik ezagutzen dira.

Honexegatik, Eibar alderako interak ez du hazkuntza lineala izan, beste muturreko luso auzuneak izan duenaren antzera, bakanka lekutzen diren baserriek ezaugarritzen dutelarik. San Roke baseliza (21-7), gaur egun hilerriko kapera dena izan da eremu honi nortasuna eman diona.

### **O Larragibel**

Auzoxka honek arestian aipatutako ezaugarri ugari egiten ditu bere, habitataren ezaugarriei dagokienez batik bat. Badirudi iatorriz Aixola ibai buruaren balio estrategi-koetaz baliatuaz sorturiko gunea dela, Eibar



**Diputazioaren etxea.**



**Asentzioko baseiza.**

eta Bizkaiko lurraldeetara sarrera-bide bat zabaltzen bait du. Aipaturiko balio hauekin lot daiteke Jaolatza baserriaren izatea (21-38), ikaragarri aldatutako dorretxea.

#### ● **Arantzeta eta Goimendi**

Arantzeta auzoa antzin-antzinako bide baten ertzetan hedatzen da, eibar eta Plentzia batzen dituena. Bidearen behe aldea hartzen du; Goimendi berriz, Galdaramuño eta Txopinburu mendi-eremuetan barna hedatzen da. Arantzetak besarkatzen du biztanlerik gehien eta gorde ditu hainbat baserri garrantzitsu San Blas basilizaren inguruan (21-3). Hauen artean, Oianguren oinetxea (21-6) armarría duena, eta Kastillokoa baserria (21-4) gailentzen dira.

Goimendi Santiago Azurza basilizaren inguruan tajutzen da (21-1). Plentziatik, Sagar Erreka ibarrari gaina hartuaz autoz bertara daiteke. Tradiziozko eraikuntza da. Badu baserri interesgarrikeri ere, Asula baserria esaterako (21-2).

#### ● **Uriarte**

Bergarara doan errepidearen bi aldetara hedatzen da. Urrupain dorretxea (21-11), Abidrio Etxea izenez ere ezaguna, herrian balio artistikorik handieneko etxe zibila dela esan daiteke. 1564ean eraiki zuten eta por-

tada errenazentistari eutsi dio. Aipaturiko bidearen bazterrean lekutzen da eta honen bestez, egungo bideak lehenagoko Errege Bidea fosildu duela erator daiteke. Egoera hau arindu egingo da hein batean, tradiziozko bideari lotutako zenbait testigantza erlijiosoren kokapena dela eta. Uriarte basilizak esate baterako (21-9), gainbehera egon arren portada ojibalari eutsi dio eta XIII-XIV. mendekoa da; baita izen bereko Santutxua ere (21-10) eta San Adrian base-liza, gaur egun San Antonioren zaindaritzapean dagoena.

#### ■ **Isusigarra**

Auzo honek ur-errota bakarra biltzen du (21-14), orain dela gutxi arte martxan eutsi zaiona. Ubera errekararen buruan lekutzen da eta tresneria ezezik, urak biltzeko azpiegitura ere gorde du.

#### ● **Antzuategi eta Asentzio**

Antzuategi auzoa osatzen duten baserri-rik gehientsuenak, kanpantzargo gaiguneraino iristen den errepide inguruan kokaturik daude, San Salbadorri emaniko basiliza xumetik gertuan (21-13).

Besteak beste Antzuategi Erdikoa baserria (21-12) da aipagarria, XVII. mendean eraikia.

Jasokundearen mendi inguruan lekutzen den Asentzio baserria, mendi honetan izen bereko basiliza dago, Angiozarrerako antzin-bideari lotzen zaio. Badirudi basilizak egiaztatzen duela uste hau, bertatik Bergarako udalerrian lekutzen diren lurretarako egungo errepidearen igaroguneri gaina hartzen diola.



**San Antonio basiliza.**

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako  
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

